



PROIEKTU BAT EGITEA

Zure lanean obrak erabiltzea,
egile-eskubideak errespetatuz



Obren erabilera

- Oro har, egilearen baimena behar izaten da beste pertsona batzuek sortutako lanak erabiltzeko.
- Ez da baimenik behar:
 1. Datuak, ideiak eta printzipioak erabiltzeko.
 - Betiere zeure hitzekin idazten badituzu.
 - Gogoan izan: aipatu iturriak eta egilearen izena.
 2. Aipuak erabiltzeko.
 - Erabil daitezke testu baten zuzeneko aipuak.
 - Aipuak dibulгатutako lan baten zati batera mugatu behar du, eta irakaskuntza- edo ikerketa-xederako bakarrik txertatu ahal izango dira.
 - Beti aipatu behar dira iturria eta egilea.



Obren erabilera

3. Egile-eskubiderik gabeko lanak libreki erabil daitezke.
 - Babes-epea ez dagoenean indarrean, hau da, egilea hil zenetik 70 urte igaro ondotik.
 - Ez dute egile-eskubideen babesik legeek, erregelamenduek eta haiei dagozkien proiektuek, jurisdikzio-organoen ebazpenek eta organismo publikoen egintzek, erabakiek, deliberamenduek eta irizpenek, ez eta haien guztien itzulpen ofizialek ere. Alabaina, gerta liteke testu horien edizio jakin batzuek jabetza intelektualeko eskubideen babesa izatea.



Obren erabilera

4. Estekak txertatzea.

- Baimenduta dago sarbide askeko webguneetan dauden obra eta prestazioetarako zuzeneko estekak ipintzea, betiere eskubideen titularren baimena izanez gero.
- Zure lanean bideo bat edo babestutako beste lan bat txertatzeko, beharrezkoa da, oro har, baimena izatea –esaterako, Creative Commons lizentzia baten bidez–, nola eta ez den aplikatzekoa legez aurreikusitako aipu-muga, zeinak aukera emango bailuke zatitxo bat txertatzeko, aipu, analisi, iruzkin edo iritzi kritiko gisa, betiere irakaskuntzan edo ikerketan erabiltzeko bada.

Iturriak legezkoa izan behar du, hau da, egilearen baimenarekin partekatua eta banatua.



Lizentziarekin baimendutako erabilera

Aukera ugari dituzu zure lanean obrak erabiltzeko, hala nola jabetza intelektualeko eskubideak kudeatzen dituzten erakundeek emaniko lizentzietara jotzea.

1. Ikastetxeetarako egile-eskubideen lizentzia batekin, testuetatik ateratako pasarteak kopiatu daitezke proiektuetan eta ikasgelan.
2. Egile-eskubideak kudeatzen dituzten erakundeen beste baimen batzuk (esaterako, musika erabiltzeko).
3. Creative Commons (CC) lizentzia.
4. Baimena zuzenean eskatzen zaio egileari edo egile-eskubideen titularrari.

Testu-materialen erabilera

- Baimenduta dago datuak eta ideiak erabiltzea.
- Baimenduta dago besteren obra-zatiak sartzea –aipamen, analisi, iruzkin edo judizio kritiko bat egiteko–, betiere aipamen hori irakaskuntza- edo ikerketa-xedez egiten bada. Beti aipatu behar dira iturria eta egilea.
- Argitalpen baten laburpena, taula bat edo testu-zatiak txertatzea zure lanaren zati gisa.
 - Ikastetxeetarako CEDROren lizentzia edukiz gero, baimenduta dago partzialki kopiatzea eta banatzea liburuen, argitalpenen, aldizkarien eta abarren erreproduzioak.
- Egiaztatu iturrien fidagarritasuna eta aipatu iturriak; era berean, adierazi egilearen izena.

Irudien erabilera


1. Zeuk egindako argazkiak erabil ditzakezu.
 - Irudiok erabili ahal izateko, gogoan izan baimena eskatu behar zaiela haietan agertzen diren pertsoneri.
2. Ikastetxe batek irudiak erabiltzeko baimena behar badu, eskubideen titularrari eska diezaioke, edo jo dezake, orobat, argazkilariak eta ilustratzaileak ordezkatzan dituen kudeaketa-erakundera (Espainian, VEGAP arduratzen da, Visual Artista Plastikoen Kudeaketa Erakundea).
3. Creative Commons lizentziarekin partekatutako irudiak erabil daitezke, betiere lizentzia horien parametroen barruan.
4. Babes-epea indarrean ez daukaten irudiak erabil daitezke.
5. Beti eska diezaiokezu irudia erabiltzeko baimena egileari/argazkilariari edo haiek ordezkatzan dituen kudeaketa-erakundeari (Espainian, VEGAP arduratzen da, Visual Artista Plastikoen Kudeaketa Erakundea).

Gogoan izan: beti aipatu behar dira argazkilariaren izena eta, hala badagokio, iturria.

Argazkiak egitea

- Leku publikoetan egin daitezke argazkiak.
 - Bide publikoan modu iraunkorrean instalatutako obrak (estatuak, eskulturak, obra arkitektonikoak...) libreki erreproduzitu, banatu eta komunikatu daitezke, pintura, marrazki, argazki eta ikus-entzunezko prozeduren bidez.
- Ez da gauza bera argazkiak egitea eta argitaratzea.
- Irudi bat argitaratzeak ez du urratu behar bertan agertzen den pertsonaren intimitatea edo ohorea.

Beti da gomendagarria argazkiak egiteko eta argitaratzeko baimena eskatzea.



Hondoko musika gehitzea

- Kontsultatu musika-fitxategiak eta soinu-efektuak erabiltzeko baldintzak, bai eta bideo-edizioko programak baliatzekoak ere (adibidez, iMovie edo Final Cut).
- Interneten bada musika erabilgarri.
 - Adibidez: CCMixer eta Freesound.org
 - Gogoan izan: arretaz kontsultatu behar dira musika eskuratzeko bankuen edo plataformen erabilera-baldintzak.
- Zeuk egindako musika erabil dezakezu.
- Film labur edo lan batean hirugarrenen musika erabiltzeko, eskubideen titularrari edo hura ordezkatzeko duen entitate kudeatzaileari eska diezaiokezu baimena –adibidez, SGAE Egile eta Editoreen Elkarteari–.



Bideoen erabilera

- Baimena behar da bideo bat edo haren edozein zati zure lanaren parte gisa erabiltzeko, non eta ez den aplikatzekoa muga edo salbuespenen bat, hala nola aipu-muga.
 - Egileak edo egile-eskubideen titularrak eman dezake baimen hori (adibidez, bideoaren ekoizleak)
 - Baliteke bideoa erabiltzeko baimena Creative Commons lizentzia batekin eman izana. Kontsultatu arretaz edukia jasotzen duen plataforma edo webgunearen erabilera-baldintzak, eta ziurtatu gune fidagarriak direla.
- Ipin litezke sarbide askeko webguneetako obra eta prestazioetarako zuzeneko estekak, betiere eskubideen titularren baimena izanez gero.
 - Kontuz! Bideoak legez eskuragarri egon behar du Interneten.
- Bideoak publikoki proiektatzeko, baimena behar da.

Obra bat eraldatzea

- Obra bat eraldatzeko, egilearen baimena behar da.
 - Obra bat eraldatzea da, esaterako, irudi bat editatzea, testu bat itzultzea, musika-moldaketak egitea, bideoak editatzea, eta abar.
- Baliteke egileak bere obra aldatzeko baimena eman izana Creative Commons lizentzia baten bidez.
 - Kontsultatu arretaz babestutako obrak biltzen dituen plataformaren eta webgunearen erabilera-baldintzak. Ezin dira aldatu Creative Commons (CC) lizentzia duten obra guzti-guztiak; eskubideen titularrak sartu duen CC lizentzia-motak zehaztuko du hori.

Obra bat eraldatzea

- Obra bat eraldatzeko, eskubide-titularraren baimena behar duzu. Testu-lan baten kasuan, eskubideak kudeatzeko dagokion erakundean ere egin dezakezu kontsulta, hala nola CEDROn.
 - Lan aldatua ezin da partekatu Interneten, ezta erabili ere, nola eta ez daukazu horretarako baimena edo ez den aplikatzen parodia-muga.
 - Ez da beharrezkoa egileari baimena eskatzea dagoeneko zabaldua dagoen bere lanaren parodia bat egiteko, betiere ez badakar nahasteko arriskurik eta ez bazaio kalterik eragiten jatorrizko lanari edo haren egileari.
- Obrak ezin dira aldatu, baldin eta aldaketa horrek kalte egiten badie egileari edo haren lanari.

Ikastetxeetarako CEDROren lizentziarekin

- Irakasleek
 - Liburuen eta beste argitalpen batzuen parteen kopia horiek fotokopiatu eta banatu ahalko dituzte.
 - Aldizkako agerkari batean (egunkari edo aldizkari bat) jasotako liburu baten % 10 edo artikulua bat, gehienez.
 - Testu-lanak inprimatzea edo eskaneatzea.
 - Ikasleen eskura ipintzea intranet batean kopiatutako zatiak.
 - Zatia zentroak egindako dokumentu batean txertatzea, barne-erabilerarako.
 - Liburuen, argitalpenen eta abarren fotokopiak eta testuak egitea.
 - Zatiak posta elektronikoz bidaltzea ikasleei eta langileei.
- Gogoratu: beti adierazi behar dira iturriak.

Creative Commons lizentziak



= obraren egilea adierazi behar da



= obra ezin da erabili merkataritza-helburuetarako



= obra ezin da aldatu



= lan baten aldaerak jatorrizko lanaren Creative Commons lizentziaren baldintza berberetan banatu behar dira Interneten.

- Creative Commons lizentzia duen materiala erabili aurretik, argitu egileak zer baldintza ezarri zituen materialaren erabilera baimentzeko.
- Lizentziaren sinboloa eta egilearen izena aipatu behar dira zure lanean.
- Ahal bada, jatorrizko obrarako esteka ipini behar da beti.

Iturriak aipatzea

- Beste pertsona batek sortutako materiala edo aipuak erabiltzen dituzunean, egilearen izena eta iturria aipatu behar dira, jardunbide egokien arabera.



Iturriak aipatzeko adibideak

- Liburu bat:
 - Egilea(k). Argitalpen-urtea. Liburuaren izena. Argitaletxea.
- Argitalpena:
 - Idazlea. Argitalpen-urtea. Artikuluaren izena. Argitalpenaren izena. Argitalpen-data edo argitalpenaren zenbakia.
- Irudia:
 - Irudia: Argazkilariaren izena
- Interneteko iturria:
 - Idazlea/argitaletxea: Izenburua. (Testu-mota). Kontsulta-data. Non eskura daitekeen: Interneteko helbidea.
- Elkarrizketa bat:
 - Elkarrizketatuaren izena. Lanbidea. Enpresa/erakundea. Elkarrizketaren eguna.